

# Kulturgintza

## Jasoko bada, jaso behar da

Arrazoi izan gabe ere arrazoiaren jabe egiteko 38 martingala edo amarru bildu zituen Arthur Schopenhauer filosofoak, bere garaiko eztabaida akademikoei luzaroan zorrotz eta mingots erreparatu eta gero. Ondorio nagusia: eztabaidon helburua ez omen zen aitortzen zena –iritzi desberdin-kontrajarrien talkatik egia bakarraren ezpalak ateratzea–, baizik eta, aitzitik, kosta ahala kosta norberaren arrazoiak arrazoiaren gainetik ezartzea, irentsaraztea.

JOXERRA GARZIA

NI NEU ERE saiatu naiz Schopenhauerrek egin zuena egiten, eta, nire ustez, helburuari dagokionez ezin zaio filosofo borondatetsuak esandakori koma erdirik ere aldatu: arrazoiak arrazoi, arrazoiaren jabe izatea da kontua, orduan Alemaniaren bezala orain gurean, ezkerrekoetan bezala eskuinekoetan.

Nolanahi ere, nago labur ez ezik motz, oso motz, geratu zela gure Arthur dialektika ustelean erabiltzen diren martingalen katalogoa osatzerakoan, asko baitira harenean aipatzen ez eta gurean barra-barra erabiltzen direnak.

Denak ezin, eta bakarra aipatuko dut nik hemen. Zer baitetan zeure arrazoiak ezarri nahi baduzu, ez aipatu zuzenki dena delako gai hori; asmatu beste gai bat, potoloagoa, eta egizu hartaz ari zarela planta. Hori eginik, berehala hasiko zaizkizu handik eta hemendik kontra egiten. Orduan, lerra ezazu benetan axola dizun arrazoi hori, aldi berean hizpidera atera duzun gaian amore ematen duzulako itxura egiten duzula.

Hala, balia liteke, esaterako, krisia despido librea aldezteko, armak ideiak kartzelaratzeko, globalizazioa gure gizarte-sare sarriak baliogabetzeko, eta abar.

Euskarak hain beharrezkoa duen kontsentsu zabala, esaterako, primeran balia daiteke bidenabar beste arrazoi ez hain arrazoizkoak zeharka lerratzeko. Askok eta askotarikoak dira horrela lerratzeko ari zaizkigun duda-mudako arrazoiak. Nik, larriagorik ere baden arren, bat bakarra aipatuko dut, kulturgintzari dagokiona.

Euskarak XXI. mendean izan dezakeen atarimentua delarik ageriko hizpidea, bizpahiru iturritatik irakurri edo entzun dut kultura *jasoa* ez

**Bizpahiru iturritatik irakurri edo entzun dut kultura *jasoa* ez dela euskararen erabateko normalkuntzarako erabakigarri, horretarako kontsumo *errazeko* produktuak behar direla**

dela euskararen erabateko normalkuntzarako erabakigarri, horretarako kontsumo *errazeko* produktuak (ahalik eta jende gehienak kontsumitzeko modukoak) behar direla.

Ondorio horretara iritsi direnak, garbi gera bedi hori, euskararen aldeko eragile ezagun, saiatu eta zintzo askoak dira, horretan ez dut dudarik. Halarik ere, nago jo diguten adar horrek adaska gehiegitxo dituela, besterik gabe biderako makulutzat hartzeko.

Ez diet nik ezer kenduko antzerkian *Ama begira zazu*, literatura *Kutsidazu*, telebistan *Basetxea* edo kantuan trikitixa klonikoari. Audientzia zabaleko produktuak dira, eta horiek ere nahitaezko ditugu. Gakoa, ordea, *ere* horretan dago (ez nahastu aspaldion hain moda zoritxarrekoan ditugun beste ERE horiekin).

Antza denez, ni bezain euskaltzale diren batzuek *jaso* aditzaren *hartu* adierari ematen diote lehentasuna, eta horixe jarri nahi bide dute idi (ez nahastu aspaldion hain moda zoritxarrekoan dugun IDI delakoarekin, horrek, antza, zientzia alorrerako bakarrik balio omen baitu).

UNESCO k esan berri digu, ordea, euskara hauskor dagoela, hizkuntzen rankingean behe samarrean. Eta behean dagoena salbatu nahi bada, jaso beste erremedioirik ez dago.

Izan ere, kultura jasoaren produkturik gabe (Brecht edo Ionesco, *Zulo bat uretan* edo *Sistema Periodikoa*, Sautrela edo BBCren dokumentalak, Ruper edo Joseba Tapia), ezinezkoa da produktu errazik sortzea.

Hots: *jaso*-hartzekorik izango bada, aurrena *jaso*-altxa beharko dela euskara. ■

